



ERABAKIA, 2017ko AZAROAREN 15ekoa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ESPAINIAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMARA SARTZEKO MODALITATEAREN BARRUAN UPV/EHUK KONTRATATUTAKO IKERTZAILEEN IKERLANA EBALUATZEKO DEIALDIA IREKITZEKO DENA.

Lehenengoa.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22.2 artikulua ezarritakoarekin bat, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistemara sartzeko modalitatearen barruan kontratatutako ikertzaileek, kontratuaren bigarren urtea amaitutakoan, ebaluatu egin ahal izango dute euren ikerlana.

Bigarrena.- 2017ko uztailaren 12an EHAAn argitaratu zen UPV/EHUK Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko modalitatearen arabera kontratatutako langileen ikerlana ebaluatzeko Arautegia (aurrerantzean, ebaluazio arautegia), ikerlan hori ebaluatzeko esparrua finkatzeko helburuarekin.

Hirugarrena.- Arautegi horretan ezarritako prozedurari jarraituz, 2017ko urriaren 11n argitaratu zen Ikerketaren arloko errektoreordearen urriaren 10eko Erabakia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko modalitatearen barruan UPV/EHUK kontratatutako pertsonalaren ikerkuntza jardura ebaluatzeko irizpideak onestekoa.

Laugarrena.- Amaitzeko, aipatutako ebaluazio arautegi horrek ezartzen du Ikerketaren arloko Errektoreordetzari dagokiola finkatzea interesdunek ebaluazio eskaerak zein unetik aurrera aurkez ditzaketen.

Adierazitako guztiagatik, aipatutako arautegiko 6.1 artikulua eta azken xedapenak ematen dizkidaten eskumenen babesean, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Agintzea erabaki hau argitara dadila Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzaren eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren iragarki tauletan eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian.

Bigarrena.- Erabaki hau errektoreordetzako web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, ebaluazio arautegiaren 2. artikuluan adierazitako ikertzaileek euren ikerlana ebaluatzeko eskaera egin ahal izango dute.

Eskaerak bide telematikotik egingo dira, Unibasq-eko web orrian (www.unibasq.eus helbidean), horretarako prestatutako aplikazio informatikoa erabilita.

Aplikazio informatikoaren bidez eskaeraren laburpen dokumentua eskuratu ahal izango du eskatzaileak eta dokumentu hori sinatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara bidali beharko du 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako moduetako batean.

Ebaluazio hau eskatzen duten pertsonak Unibasq-i ordaindu beharko diote Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Legeak 95 *quinquies* artikuluan ezarritako tasa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak irakasleen eta ikertzaileen ebaluazio eskaera normalizatuak izapidetzeko eman beharreko zerbitzuei aplikatzeko.

Hirugarrena.- Aplikazio informatikoaren bidez egindako eskaeran honako hauek adierazi beharko dira:

a.- Aplikazioak eskatzen dituen datu pertsonalak.

b.- Eskaera zein jakintza arlotarako egin nahi den.

c.- Ebaluazioa zein batzordek egitea nahi den.

d.- Eskatzailea ebaluatzeko beharrezkoak diren merezimendu akademiko eta profesionalak. Argitalpenen atalean, gehienez ere, hogeita hamar ekarpen jaso ahal izango dira, eta kongresuetan parte hartzeari dagokion atalean, gehienez, hamar (eskatzaileak berak garrantziaren arabera aukeratutakoak).



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN

e.- *Curriculum vitae* osoa. Komeni da ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak bakarrik jasotzea. Halaber, komeni da «doi» (*digital object identifier*) adieraztea halakorik duten argitalpenetan. Bestalde, derrigorrezkoa izan ez arren, gomendagarria da curriculum CVN formatu normalizatuan aurkeztea (<https://cvn.fecyt.es>).

h.- Tasa ordaindu izanaren agiria.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo eskudunaren aurrean, bi hilabeteko epean, erabakia Ikerketaren arloko Errektoreordetzako web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Hala ere, interesatuek aukera izango dute egintza eman duen organoari berari berraztertzeko errekurtsoa jartzeko, hilabeteko epean, erabakia Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Azken kasu horretan ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, berraztertzeko errekurtsoren ebazpen espresua eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorrira.

Stua.: José Luis Martín
Ikerketaren arloko errektoreordea